

IZENA EMATEKO FORMULARIOA

Abizenak: _____

Izena: _____

NAN: _____

Posta elektronikoa: _____

Erakundea /lanaren lekua: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____ Fax: _____

Komunikazioa / txostena aurkeztuko duzu (markatu dagokiona):

BAI EZ

Komunikazioa aurkezteko mahai-ingurua (1,2 edo 3): _____

Inzkripzio-kuota (dokumentazioa eta komunikazioa aurkeztearen edota bertaratzaren ziurtagiria barne) (markatu dagokiona):

> **Parte-hartzailearen kuota:** 50 euro.

> **Komunikazioa onarturik daukan parte-hartzailearen kuota:** 25 euro.

> **Ikasleen kuota:** 25 euro.

> **Komunikazioa onarturik duten ikasleen kuota:** 0 euro.

Inzkripzioarako epea: 2015eko maiatzaren 25 baino lehen.

Ordaintzeko era: Banku transferentzia Lan Harremanen Eskolaren izenean. "Kontzeptua"n zehaztu behar duzu: "I Encuentro de pro-fesionales del asesoramiento laboral y social: Crisis empresariales y derechos fundamentales de los trabajadores".

ERAKUNDEA KUTXABANK: ES/88/2095-0292/9/0/911467016-8

Inskripzioa formalizatzeko hurrengo dokumentazioa lh.zuzendari-idaz@ehu.es posta elektronikara edo 94 601 30 75 Fax-era bidali behar duzu :

*Formulario hau

*Bankuko inprimakia (kuota sartzearena)

*Ikaslea bazara, unibertsitatean egindako matrikularen justifikantea

Zeozar argitzeko edota informazio gehiago jasotzeko antolatzaileekin kontaktuan jarri.

Noiz: 2015eko maiatzaren 28an (osteguna) eta 29an (ostirala).

Non: Escuela Universitaria de Relaciones Laborales – Lan Harremanak (Leioako Campusa).

Norentzat: legelari eta ekonomialarien bulego profesionalak; profesional independenteak; kabinete teknikoetako eta sindikatu aholkularitzetako profesionalak; Zuzenbidea, Lan Harremanak, Ekonomia eta Enpresa, Soziologia eta Politika Zientziak, eta Gizarte Langintza graduetako ikasleak, eta lanarekin eta gizarte politikarekin lotutako graduondokoetakoak; sindikalistak; eta langileak, oro har.

Helburuak: egungo ekonomia eta gizarte krisian, gizartearen gehiengoaren aurkako ekonomia politika oldarkorrek eta horiei eusteko legegintza erreformak daudenean, lanean diharduten profesionalak leku gakoan daude beren eskubideak defendatzeko eta lortzeko. Enpresa krisiek biltzen dute lan eta gizarte gatazkaren zati handi bat, eta gatazka horien kudeaketa oso konplexua da, hainbat elementu biltzen dituelako (juridikoak, ekonomikoak, sozialak). Halaber, erabakigarria da langile klaseen zati handi baten lan eta bizi baldintzei dagokionez.

Topaketa honen xedea da enpresa krisien eta funtsezko eskubideen fenomenoaren partekatzea ikuspegi judizialek, akademiko-ikertzailek eta profesionalek. Lehengo esparruari dagokionez, sistematikoki berraztertuko da esku hartze profesional juridikoarekin eta ekonomikoarekin lotutako gai gakoaren inguruko jurisprudentzia. Bigarren esparruan, sakondu egingo da gai juridiko eta ekonomiko aplikatuei buruzko ikerketaren, irakaskuntzaren eta esku hartze profesionalaren inguruan. Azkenik, langileei negoziazio prozesuetan eta justizia epaitegietan defendatzeko aholku ematen dieten profesionalen ikuspegia azaleratuko da.

Komunikazioak: Komunikazioaren proposamena 2015eko maiatzaren 25 baino lehen aurkeztu behar duzu lh.zuzendari-idaz@ehu.es posta elektronikora bidaliz.

Komunikazioak aurkezteko arauak ezagutzeko:

<http://www.ehu.es/eu/web/lan-harremanak/kongresu-eta-jardunaldiak>

Lan eta gizarte aholkularitzan
diharduten profesionalen lehen
topaketa

Enpresa krisiak eta
langileen
funtsezko
eskubideak

2015eko maiatzaren 28a eta 29a
UPV/EHUko Lan Harremanen
Unibertsitate Eskola (Leioa)



Antolatzailea:



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labor Relations

Laguntzailea:



Bizkaiko Campuseko
Errektoreordetzak babestua



Universidad
del País Vasco Euskal Herriko
Unibertsitatea

2015EKO MAIATZAREN 28a (OSTEGUNA)

16:00. Izena ematea eta materialak banatzea.

16:15. Topaketa eta bertaratuak aurkezpena.

16:30. Mahai ingurua. "La administración de justicia ante la crisis empresarial y la protección de los derechos fundamentales de los trabajadores y trabajadoras". Moderatzailea (UPV/EHU).

> **Garbiñe Biurrun Mancisidor**. Epailea eta EAeko Auzitegi Nagusiko Gizarte Aretoko burua.

> **Rafael A. López Parada**. Gaztela eta Leongo Auzitegi Nagusiko Gizarte Arloko epailea.

> **Miquel Àngel Falguera Baró**. Kataluniako Auzitegi Nagusiko Gizarte Arloko epailea eta gizarte jurisdikzio aldizkariko (Jueces por la Democracia) zuzendaria.

Mahai inguru horretan berriz aztertuko da 2012-2015 aldiko alderdi batzuen jurisprudentzia. EAeko Auzitegi Nagusiko, Entzutegi Nasionaleko eta Auzitegi Gorenko jurisprudentzia garrantzitsuena zerrendatuko da; hain zuzen ere, krisian dauden enpresen (EEE, EEABE, LBFA) eta langileen funtsezko eskubideak urratzearen inguruko (bazterketa sindikala eta greba). Zehazki, prozeduretako aholkularitzan eta epaiketetan parte hartzen duten profesionalentzat interes berezia duten alderdiak aztertuko dira: emandako eta eztabaidatutako dokumentazioa eta informazioa; negoziazioan fede ona dagoen; ekonomia, ekoizpen eta antolakuntza kausalitateko epaiketa; funtsezko eskubideak urratu diren ala ez prozesu horietan (bereziki, greba eta askatasun sindikala). Halaber, enpresa taldeen berezitasunak aztertuko dira, eta kontabilitatearen, ekonomiaren, ekoizpenaren, antolakuntzaren eta teknikaren arloko froga tresnekin lotutako alderdi guztiak landuko dira, izan judizialki aurreratutako froga, izan prozesu kolektiboetatik eratorritako froga.

17:30. Eztabaida eta komunikazioak.

18:30. Saioaren amaiera.

MAIATZAREN 29a (OSTIRALA)

10:00. Mahai ingurua. "La conexión entre intervención profesional y docencia e investigación". Moderatzailea (UPV/EHU).

> **Antonio Baylos Grau**. Gaztela-Mantxako Unibertsitateko Lan Zuzenbideko eta Gizarte Segurantzako katedraduna, eta Bomarzo argitaletxearen gizarte zuzenbideko aldizkariaren zuzendaria.

> **Mikel Urrutikoetxea Barrutia**. Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Lan Zuzenbidea eta Gizarte Segurantzako irakaslea. Lan Harremanak, UPV/EHUko lan harremanei buruzko aldizkaria.

> **Pedro Juez Martel**. UNEDeko Ekonomia Aplikatua irakasgaiko irakasle titularra. Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiko Kontabilitate eta Ekonomia irakaslea.

Mahai horretan honako hauek aztertuko dira: ikerketa juridikoa eta ekonomikoa gizaratearen, irakaskuntzaren eta horien eta esku hartze profesionalaren arteko loturaren inguruan, eta dotrina egiteko itzultzea eta azterketa. Hortaz, hainbat aldizkariaren edukiak aztertuko dira, arauen bilakabidearen eta bilakabide sozioekonomikoaren azterketa orokorretik krisian dauden enpresei, askatasun sindikalari eta grebari buruz aurreko mahaian landutako edukiekin lotutako azterketa zehatzagora. Orobat, ekonomia eta kontabilitate informazioaren lan alderdiak aztertuko dira, baita kontabilitate eta ekonomia iruzurrarekin lotutako formulak ere, kaleratzeari eta krisian dauden enpresei loturik. Beste jurisdikzio batzuekin (merkantila, penala) lantzean behin izaten diren harremanak ere aztertuko dira.

11:00. Eztabaida eta komunikazioak.

11:30.- Atsedena kafea.

12:00. Mahai ingurua. "Los profesionales en el asesoramiento social". Moderatzailea (UPV/EHU).

> **Enrique Lillo**. Abokatua. **Eduardo Gutiérrez**. Ekonomialaria. CCOOko Kabinete Interfederala

> **Rita Giráldez**. Abokatua. **Lluís Rodríguez**. Ekonomialaria. CNTko Kabinete Tekniko Konfederala.

> **Haimar Kortabarria**. Abokatua. Lege-aholkularitza. ELA. **Niko Iriarte**. Ekonomialaria. Negoziazio kolektiboko kabinetea.

Aholkularitza profesionalaren esperientzia oinarri hartuta, mahai honetan langileen eskubideen defentsaren orainerako eta etorkizunerako garrantzitsuak diren gaiak aztertuko dira, langileen eskubideen defentsari eta enpresetako eta ekonomiako gizarte aurrerapenaren aukerei dagokienez. Zer estrategia darabilte enpresek krisialdian gizarte eskubideak urratzeko? Beti da aukera ona "gutxieneko kaltea"-ren arabera hitzarmen politika? Bideragarritasun ekonomikoren arrisku juridikoa beste modu batean kudea daiteke, gizarteak aurrera egiteko? Zer orientazio izan dezake lan harremanen beste esparru batek, enpresen krisiari, negoziazio kolektiboari eta sindikatu-takotako partaidetzari dagokienez? Zer erronka profesional daude sindikalismoa indartzeko?

13:00. Eztabaida eta komunikazioak.

14:00. Bazkaria.

16:00. Topaketako eta bilerako ondorioak..

18:00. Topaketa ixtea.